

Donostian, 2024ko uztailaren 5ean

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

TENTSIO HANDIKO GUNE DEKLARATZEARI BURUZKO MOZIO ARRUNTA

Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Arantza Gonzalez Garciak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta tentsio handiko gune deklaratzearen gaineko MOZIO ARRUNT hau aurkeztu behar dio Udalbatzari, OSOKO BILKURAN EZTABAIDATZEKO.

JUSTIFIKAZIOA

Aurreko hilean, tentsio handiko gune deklaratzeari buruzko kontrol mozio bat onartu zuen Udalbatzak, eta, haren bidez, udal gobernuari eskatu zion ahalik eta azkarren izapidetzeko espedientea Eusko Jaurlaritzara bidali aurretik egin behar diren lanak, bitarteko egiteko inbertsio-funtsen eta haien maizterren artean eta alokairu-kontratuen luzapena eskatzeko.

Mozio arrunt hori egiteko arrazoia izan zen Azora funtsaren maizterrei burofax batzuk ailegatzen hasi zitzaizkiela, urriaren 31 baino lehen etxeak uzteko esanez. Mozioa onartu eta bost egunera, Azorak jakinarazpen horiek bidaltzen segitzen zuen.

Jakina denez, tentsio handiko gune deklaratzeari alokairu-kontratuak hiru urtez luzatzeko bidea ematen du. Esaten ari garen egoera hori, Azoraren maizterrek ez ezik, alokairuan bizi diren beste pertsona batzuek ere badaukate.

Hori dela eta, premia handikoa da Donostia tentsio handiko gune izendatzea, etxebizitza bizileku iraunkor izateko alokatzen duten pertsonak egonkortasun bat izatea bermatzeko; izan ere, etxea utzi behar izanez gero, ez baita samurra beste bat aurkitzea Donostian.

Ondorioz, udal gobernuak azkar egin behar ditu tentsio handiko gune izendatzeko egin behar diren lanak; baina, baita Eusko Jaurlaritzak berak ere, Azoraren maizterrek eta alokairuan bizi diren beste pertsona batzuek beren etxeetan hiru urte gehiago behintzat bizitzen jarraitu ahal izango duelako lasaitasuna izan dezaten.

Hori dela eta, hauxe da gure

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio urgentziatzko bidetik egiteko Donostia tentsio handiko gune izendatzeko dokumentazioa jaso ondoren egin behar dituen izapide guztiak.

Victor Lasa Briz,
Elkarrekin Donostia
udal taldearen bozeramailea